

TEKNOLOGIA

Adimenaren biologiaz



DIANA FRANCO EGUREN

Herriko liburutegian, teknologiaren inguruko espazio ireki batean hartzen dut parte. Aurrekoan, haurrentzako robotika proiektu bat sortzeko Arduino plaka erabiltzen ikasi nahi zuten bi emakume gerturatu ziren, bata programatzailea, bestea ni bezalako kuxkuxeroa. Hirurak jarri ginen martxan. Urteak ziren Arduinorekin aritzen ez nintzela. Elektronika ulertzen dudana modua azaldu nien, Arduino plakaz gogoratzen nuena eta erabili behar genituen osagai elektronikoen izaera. Programatzen hasteko unea heldu zen. Programatzailearentzat erronka intelektuala zen, orri zurian idazten hasi zen, eta nik "copy past"-aren bidez bidea arintzea eskaini nion, ez bainintzen gai egiten zizkidan galderak erantzuteko. Bere lagunak gomendatu zuen adimen artifiziala erabiltzea, ikasteko bide bezala. Programatzaileak ezetz esan zigun, jada zekienarekin ulertzen saiatu nahi zuela.

Egoeraz pentsatzen jarraitu dut etxean, eta kasualitatez Noam Chomskyk adimen artifizialaren eta giza adimenaren inguruan egin izan dituen zenbait hausnarketa eta elkarrizketatik tiraka ibili naiz. Ulertu dudana nagatik, Chomsky jaunak gai honetan ezagutzaren jabetza (gaitasuna) eta ezagutzaren erabilera (ekintza) bereizten ditu. Chomskyk dio gizakion adimena gizakiak biologikoki garenari loturik dagoela, gizakiok ezagutzaz jabetzeko modua ezaugarri biologiko uni-bertsala dela. Hori dela eta, adimen artifiziala ezin dela gizakion adimenarekin alderatu, txindurrien adimena alderatu ezin den gisan.

Chomskyk ere badio, ekintzen eremuan adimen artifizialak gainditu egingo gaituela, gizakion adimenaren biologiarekin alderatuta datuak prozesatzeko duen memoria eta abiadura medio. Adimen artifiziala ulertzeko, pisu handiak altxatzen dituen garabi erraldoi batekin alderatu dezakegula dio, inguru espezifiko batzuetan, ekintza zehatzak guk baino hobeto gauzatu ditzakeen tresna. Eta dio, gizakion adimenari dagokionez, informazio gutxiarekin eta energia behar gutxiarekin, egoera anitzetan ezagutza sortzeko duen biologia oraindik guztiz ulertzeko bide luzea dugula. ●

NAZIOARTEA

PKK-k borroka armatua utziko du

ENEKO IMAZ GALPARSORO

PKK-k desegin eta borroka armatua utziko duela iragarri du. Antolakunde armatu kurduak bere 12. kongresuan hartu du erabakia, Abdullah Öcalan buruzagi historikoak otsailean eginiko eskaerari jarraituta. 1984an abiatu zuen PKKk Turkiaren aurkako borroka armatua, eta Nazio Batuen Erakundearen arabera, 45.000 hildako inguru eragin ditu gatazka armatu horrek. Ankarak gerrillari eskatu dio desegitea "guztizkoa" izatea, armen entregarekin eta "PKKri loturiko legez kanpoko egitura ororen" desagerpenarekin.

"PKKren borrokak gure herriari ezarritako ukazio eta suntsiketa politika hautsi du, kurduen auzia politika demokratikoaren eramanez, eta, horrela, bere zeregin historiko bete du". Öcalanek otsaileko deia egin eta gutxira, martxoaren hasieran, gerrilla kurduak erabateko su-etena deklaratu zuen, eta borrokaren beste garai bat hasiko zela azaldu, politika demokratikoaren bidez "ontasunaren, justiziaren, edertasunaren eta askatasunaren" aldekoa. Hori iragarri eta bi hilabetera heldu da bide

horren itxiera, antolakunde armatuaren desegitearekin.

AURREIKUSITAKO AMAIERA

Öcalanek eta Turkiako Gobernuak joan den urte amaieran abiatu zituzten bake negoziazioak, eta Turkiako eskuin muturreko alderdiko buru Devlet Bahçelik eman zuen horren berri, zenbait eskaintza egitearekin batera. Horietako bat buruzagi kurduaren bizi osoko kartzela zigorra baztertu eta bere espetxe zigorra 25 urtera mugatuko lukeen lege prozedura bat abiatzea zen.

Bahçelik Turkiako Parlamentura joateko gonbita ere egin zion Öcalani, han PKKk armak uzten zituela berak iragartzeko. Buruzagi kurduak Recep Tayyip Erdogan Turkiako presidenteak eta herrialdeko beste hainbat alderdi politikok erakutsitako "bakerako borondatea" goraipatu zituen, eta adierazi zuen borroka armatuari amaiera emateko baldintzak sortzen ari zirela. Turkiako Gobernuak, Erdoganen eta Yasar Guler Defentsa ministroaren bitartez, antolakunde armatu kurduari eskatu dio arma guztiak entrega ditzala. ●



TOLGA ULUTURK / REUTERS